

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

DISLEXIA DUTEN IKASLEAK: GURASOEN PERTZEPZIOAK AZTERTZEN ETA IRAKASLE GIDA BAT SORTZEN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Domeño Civico, Nerea

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara

2022-2023

DISLEXIA DUTEN IKASLEAK: GURASOEN PERTZEPZIOAK AZTERTZEN ETA IRAKASLE GIDA BAT SORTZEN

Nerea Domeño Civico

UPV/EHU

Ikasgela barruan zein kanpoan ikaskuntza-zailtasunak dituzten ikasleak daude, eta horien artean, dislexia duten pertsonak daude. Lan honen helburu nagusia, dislexia duten ikasleek behar dituzten laguntzak eta egokitzapenak jasotzen dituzten ala ez aztertzea da. Hori jakiteko, lehenik eta behin, dislexiaren inguruko informazio ugari bilatu da eta horien artean, ikasleek ikastetxearen aldetik jaso behar dituzten egokitzapenak eta laguntza ezberdinak aurkitu dira. Hori ardatz izanik, bi hizkuntza ezberdinetan (euskara eta gaztelania) aurrera eramane den galdetegi bat sortu da eta bertan, ikasleen, ikastetxeen, egokitzapen eta laguntzen eta irakasleen inguruko galderak egin dira. Ondoren, guraso talde ezberdinei hau betetzeko eskatu zaie eta parte-hartzaileak, guztira 58 izan dira. Bertan lortu diren emaitzekin, grafiko ezberdinak egin dira eta ondoren, hauetan agertu diren datuen interpretazioa egin da. Hau egin ostean, ondorio ezberdinak atera dira eta horien artean, ikasleei ez zaizkiela egokitzapen eta laguntza nahikorik ematen, familiei ez zaiela orientazio ona ematen eta hori gutxi izango balitz, gurasoek irakasleen artean formakuntza eta ezagutza falta nabaria dagoelakoaren pertzepzioa dutela agerian geratu da. Hori kontuan izanik, irakasleentzako gida bat sortu da. Modu honetan, irakasleek dislexia bezalako ikaskuntza-zailtasunari buruzko informazioa eskura izango dute eta gida hau ikasleen egoera ezagutzeko eta ulertzeko lagungarria izango da. Gainera, irakasleek ikasleen ezaugarriak lehenago antzemango dituzte eta detekzio goiztiarra egiteko aukera egongo da. Amaitzeko, gida honen bitartez, irakasleek ikasleen beharrei nola erantzun behar dieten eta hau modu egoki batean egiten ikasiko dute.

Hitz gakoak: *Dislexia, egokitzapenak, laguntzak, irakasleak, formakuntza, ezagutzak, ikaskuntza zailtasun zehatzak.*

ALUMNADO CON DISLEXIA: ANALIZANDO LAS PERCEPCIONES DE LOS PADRES Y CREANDO UNA GUÍA DOCENTE

Nerea Domeño Civico

UPV/EHU

Dentro y fuera del aula existen estudiantes con dificultades de aprendizaje, entre los que se encuentran personas con dislexia. El objetivo principal de este trabajo, es analizar si el alumnado con dislexia recibe las ayudas y adaptaciones que necesitan o no. Para ello, se ha buscado información de diferentes tipos acerca de la dislexia, entre la que se encuentran las diferentes adaptaciones y ayudas que el alumnado con dislexia debe recibir del centro. Teniendo en cuenta todo eso, se ha creado un cuestionario que se ha llevado a cabo en dos lenguas diferentes (euskera y castellano), en el cual se han formulado preguntas sobre el alumnado, las escuelas, las adaptaciones y ayudas y los profesores. Después, los cuestionarios se han mandado a distintos grupos de padres y el número total de participantes ha sido de 58. Con los resultados obtenidos en ambos cuestionarios, se han realizado diferentes gráficos y posteriormente, se han interpretado. Una vez hecho esto, se han sacado diferentes conclusiones en las que se destaca la insuficiencia de las adaptaciones y apoyo al alumnado, la falta de orientación a las familias y la percepción que tienen los padres de que existe una falta de formación y conocimiento entre los profesores. Teniendo en cuenta todo lo mencionado, se ha creado una guía para profesores. De esta manera, estos tendrán acceso a información sobre la dificultad en el aprendizaje, que en este caso es la dislexia, y esta guía les ayudará a conocer y comprender la situación del alumnado. Además, los profesores podrán anticipar las características del alumnado y estará la posibilidad de la detección precoz. Por último, a través de esta guía los profesores aprenderán a responder a las necesidades del alumnado y a hacerlo de forma adecuada.

Palabras clave: *Dislexia, adaptaciones, apoyos, profesorado, formación, conocimientos, dificultades específicas de aprendizaje.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. MARKO TEORIKOA	2
2.1. IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK DITUEN IKASKUNTZAREN NAHASTE ESPEZIFIKOAREN ESANAHIA	3
2.2. DISLEXIAREN KOMORBILIDADEAK	6
2.3. DISLEXIA MOTAK	8
2.4. DISLEXIAREN EZAUGARRIAK	10
2.5. DISLEXIA LEHEN HEZKUNTZAKO HAURRENGAN	13
2.5.1. DISLEXIAREN PREBALENTZIA HAURRENGAN	13
2.5.2. DISLEXIAREN ONDORIOAK HAURRENGAN	14
2.6. SISTEMA ETA DISLEXIA	15
2.6.1. SISTEMA JURIDIKOAREN ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN LAGUNTZAK	15
2.6.2. IKASTETXEAREN LAGUNTZAK	17
3. HELBURUAK	20
4. I KAPITULUA. GURASOEN PERTZEPZIOAK	20
4.1. METODOLOGIA	20
4.1.1. LAGINA	20
4.1.2. TRESNA	21
4.1.3. PROZEDIMENDUA	21
4.2. EMAITZAK	22
4.3. ONDORIOAK	29
5. II KAPITULUA. IRAKASLEENTZAKO GIDA	31
5.1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	31
5.2. GIDA	31
6. ONDORIO OROKORRAK	36
7. BIBLIOGRAFIA	37
8. ERANSKINAK	42

1. SARRERA

New Zealand Ministry of Education-ek (2008) dislexia ikasteko zailtasun espezifikoaren sorta bat dela eta hau irakurketa- eta idazketa-gaitasun zehatzak, bereziki, kontzientzia fonologikoa, osatugabea edo zailtasun handiz garatzen direnean ematen dela adierazten du. *American Psychological Association*-ek (2013) DSM V-ean dislexiari irakurtzeko zailtasunak dituen ikaskuntzaren nahaste espezifikoaren izena ezarri dio. Hala ere, gaur egun gizartean dislexia kontzeptua askotan entzuten da. Horregatik, lan honetan zehar bi izen hauek bereziki gabe erabiliko dira, hau da, sinonimotzat hartuko dira.

Dislexia ikaskuntza zailtasunen barruan kokatzen da eta gai honetan sakontzea oso garrantzitsua da. Bereziki, Berritzeguneari Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo haurren dislexiaren prebalentzia eskatu zaielako. Datu hauek ez daude argitaratuta baina, Lehen Hezkuntzan dislexiaren prebalentzia 2840-koa dela adierazi dute. Eta aurtengo ikasturtean Euskadin Lehen Hezkuntzako mailan 123886 ikasle egon direla jakinda, %2,29-a da prebalentzia, beraz, oso gutxi da (Castro, 2022).

Gaur egun, ikaskuntza zailtasunen detekzio goiztiarra egitea askotan aipatzen den gai bat da eta Nagore Larrañagak (2022) Ana Ikazuriagarekin batera, honen inguruko elkarrizketa bat egin zuten. Anak, bertan, detekzio goiztiarraren garrantziaz hitz egin zuen eta honako hau adierazi zuen: *“Bilakaera kontrolatzeko, funtsezkoa da. Normalean, haur hauek zergatik jakin gabe, eskolan porrot egiten dute eta horrek beraien autoestimua murrizten du”*. Honekin batera, artikuluan aipatzen den Euskal hezkuntza-sistemaren protokoloa aipatzea ezinbestekoa da. Anak protokolo hau fase ezberdinetan banatuta dagoela adierazi zuen eta lehenengo etapa, ikasgelan bertan egiten den tutorearen behaketa dela esan zuen (Larrañaga, 2022). Beraz, ikasleei beraien beharrei ahalik eta modu hoberenean eta egokienean erantzuteko, irakasleek honen inguruko ezagutza eta formakuntza nahikoa izan behar dute. Baina, tutoreek nola egin dezakete behaketa hori, ikaskuntza zailtasunak detektatzeko ezagutza eta formakuntza nahikoak ez badituzte?

Esandako guztia aintzat hartuz, lan honek bi kapitulu ezberdin izango ditu. Lehenengo kapituluan, ikaskuntza zailtasunak dituzten haurren guraso ezberdinek beraien seme-alaben irakasleen inguruan dituzten pertzepzioak ikertuko dira eta horretarako, inkesta bat egingo da. Ondoren, bertatik lortuko diren erantzunekin, grafikoak sortuko dira, hauen interpretazioak egingo dira eta ondorioak aterako dira. Bigarren kapituluan, aldiz, irakasleei zuzendutako informazio gida bat sortuko da eta bertan, dislexiaren inguruko informazio ezberdina agertuko da.

2. MARKO TEORIKOA

Dislexiaren esanahiarekin sartu aurretik, DSM V-a zer den eta bertan dagoen atal baten inguruan hitz egitea ezinbestekoa da. DSM V-a buru-nahasteen diagnostiko- eta estatistika-eskuliburua da eta bertan, ikaskuntza espezifikoen inguruko nahastearen inguruan hitz egiten da (American Psychological Association, 2013).

Pertsona batek ikaskuntza espezifikoren bat duen ala ez jakiteko asmoarekin, eskuliburu honek nahaste hau diagnostikatzeko 4 irizpide ezartzen ditu. Lehenengo irizpidea, pertsonak ikasteko eta gaitasun akademikoak erabiltzeko zailtasunak erakustea da. Hala ere, jarraian azalduko diren sintoma guztietatik gutxienez sintoma bat 6 hilabetez edo gehiagoz iraun behar du (zailtasun horri bideratutako esku-hartzeak egin arren) (American Psychological Association, 2013):

- Zailtasun ortografikoak.
- Irakurtzen duenaren esanahia ulertzeko zailtasuna.
- Adierazpenarekin idazteko zailtasunak.
- Hitzen irakurketa zehaztugabea edo motela eta ahalegindua.
- Matematika-arrazoiketarekin zailtasunak.
- Zenbakizko zentzua, zenbakizko datuak edo kalkulua menderatzeko zailtasunak.

Bigarren irizpidea, pertsonaren gaitasun akademikoak funtsean eta maila kuantifikagarrian bere adin kronologikorako espero denaren azpitik egotea da, eta hauek errendimendu akademikoan, lan-errendimenduan, edo eguneroko bizitzako jardueretan eragin nabarmena izaten dute. Aipatu berri diren jarduera horiek, banaka hartutako neurri (proba) estandarizatuen eta ebaluazio kliniko integralaren bitartez egiaztatzen dira. Gainera, 17 urteko edo gehiagoko pertsonetan, ikaskuntzaren zailtasunen historia dokumentatua ebaluazio estandarizatuarekin ordezkari daiteke (American Psychological Association, 2013).

Hirugarren irizpidea, ikasteko zailtasunak eskola-adinean hasten direla da, baina gerta daiteke kaltetutako gaitasun akademikoaren eskaerak gizabanakoaren gaitasun mugatuak gainditu arte hau guztiz ez gertatzea (American Psychological Association, 2013).

Azken irizpidea, ikasteko zailtasunak adimeneko ezgaitasunengatik, zuzendu gabeko ikusmen- edo entzumen-arazoengatik, bestelako arazo mental edo neurologikoengatik, ikasketa lengoaiari ez jakiteagatik edo hezkuntza-jarraibide desegokiagatik, ezbehar psikosozialagatik ez direla hobeto azaltzen da (American Psychological Association, 2013).

2.1. IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK DITUEN IKASKUNTZAREN NAHASTE ESPEZIFIKOAREN ESANAHIA

Aurretik esandako guztia kontuan hartuta, ikasle batek “Ikasteko Zailtasun Espezifikoak” dituenean, Hezkuntza Laguntzarako Premia Espezifikoak dituela kontsideratzen da. Hau da, ikasle batek ahozko edo idatzizko hizkuntzaren erabileran inplikaturik funtsezko prozesu psikologiko batean edo gehiagotan nahaste bat edo beste erakusten duenean, Hezkuntza Laguntzako Premia Espezifikoak dituela esan daiteke (Consejería de Educación, Universidades, Cultura y Deportes, Gobierno de Canarias, 2023).

Hezkuntza Laguntzarako Premia Espezifikoak jaso behar dituzten ikasleen barnean, mota ezberdinak aurkitu daitezke eta honako hauek dira (Eusko Jaurlaritza, 2023):

- Desgaitasunen batetik edo jokabide-nahaste larrietatik eratorritako hezkuntza-beharrizan bereziak:
 - Adimen-, entzumen- edo ikusmen-desgaitasunak, desgaitasun fisikoak eta espektro autistaren nahasmenduak.
 - Desgaitasun anitzak.
 - Gortasun-itsutasuna.
 - Jokabide-arazo larriak.
- Ikasteko zailtasun espezifikoak:
 - Mezuak ulertzea eta ekoiztea.
 - Irakurtzea eta idaztea.
 - Kalkulu aritmetikoak egitea.
 - Arreta jartzea eta/edo mantentzea.
 - Oldarkortasuna kontrolatzea.
 - Ikasteko erritmo mantsagoa dute.
 - Hizkuntzako berariazko arazoak dituzte.
- Gaitasun intelektual handiak.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartzea.
- Baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak (gaixotasuna...).
- Desberdintasun sozialeko egoerak.
- Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak.

Aurreko multzoan aipatu diren zailtasun guztietatik, bereziki, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaskuntzaren nahaste espezifikoaren inguruan hitz egingo da. Baina, honekin erlazioa duten idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko eta bestelako zailtasunak ere aipatuko dira.

Dislexia zer den ulertzeko, noiz hasi zen erabiltzen jakitea ezinbestekoa da. Beraz, kontzeptu honen esanahian murgildu aurretik, honen inguruko historiaren zati bat azalduko da.

Historiarekin hasteko, esan beharra dago, dislexia kontzeptua gutxi gorabehera, 1895eko abenduaren 21etik aurrera erabiltzen hasi zela. Momentu horretan, adigai hau ikusizko oroimenaren alterazio eta hitzen itsutasun batekin erlazionatzen zenez, ikusmen-sistemaren gaixotasun modura adierazi zen. Baina Europan “dislexia” hitza 1937ko Parisko Haur Psikiatrikoko Lehenengo Kongresuan erabili zen (Álvarez eta Correa, 2021). Honen arrazoi nagusia, MacMeeken (1939) haur eskoziarrekin dislexiaren inguruan lan egiten zuelako izan zen.

Bestalde, 40ko eta 60ko hamarkadetan dislexia duten pertsonen zailtasunak aztertu ziren eta adin egokirako irakurtzeko eta idazteko gaitasun egokia zen maila lortzeko akats modura hartu zen (Hermann eta Voldby, 1946; Hermann, 1959). Une horretan, dislexia neurogarapenaren alterazio batek eragindako ikaskuntzaren berariazko nahaste gisa hartu zen “Álvarez eta Correa, 2021, 33 or.”.

Dislexiaren historiarekin jarraituz, segidan honen inguruko esanahiari buruz hitz egingo da. Honen definizioak nahiko konplexuak izan daitezke, baina honen etimologiak gai zehatz eta zuzenago batera hurbiltzen laguntzen du. Kontzeptu honek hitzekin eta hizkuntzarekin zailtasunak izatea esan nahi du. Zehazki, grekoz, “dys” hitzak zailtasuna, pobrea, txarra edo desegokia esan nahi du, eta “lexia”, aldiz, hitzak edo hizkuntza esan nahi du. Hau jakinda, dislexia irakurketaren eta hizkuntzaren hainbat aldagaien inguruko arazoa dela esan daiteke (Díaz, 2006).

Behin kontzeptuaren etimologia zein den ulertuta, dislexia historiaren hasieratik, terminoa izendatzerako, kontzeptualizatzerako eta definitzerako momentuan autore askoren artean desadostasuna egon da (Díaz, 2006). Gainera, arazoa hobeto deskribatzeko asmoarekin, izen ugari jaso zituen, horien artean, *hitzezko amnesia bisuala*, *bradilexia*, *jaiotzetiko alexia*, *sortzetik tifoalexia*, *irakurketaren atzerapen primarioa* eta *estrefosinbolia* “Hynd eta Cohen, 1987, 21.or”.

Horrez gain, dislexiaren inguruko lehen esanahietako bat 1917an Hinshelwood-ek deskribatu zuen eta honako hau da (Critchley, 1970, 10or., apud Díaz, 2006):

“Garun arruntak edo ukigabea duten haurretan sortzetiko gertatzen den akats bat da. Haur hauek duten ezaugarrietako bat, irakurtzen ikasteko zailtasun handia izatea da.

Eta hau egoera patologiko ageriki sortua da, eta haurrari metodo arruntekin irakasteko saiakera guztiek porrot egiten dute”.

Beste esanahi bat American Psychological Association-ek (1995) egin zuen eta dislexia irakurketa-idazkera bereganatzerako orduan gertatzen den edozein nahastetzat hartu zen eta hezkuntza-aukera konbentzionalak, soziokulturalak edo hainbat arlotako trebetasunak izan arren, honek irakurketa ikasteko zailtasuna adierazten duela aipatu zen. Beraz, eskolatik heldutasunera arte pertsoneri eragiten dien jatorri neurobiologikoko nahastetzat hartu zen.

New Zealand Ministry of Education-ek (2008) kontzeptu honen beste definizio bat eman zuen eta dislexia ikasteko zailtasun espezifikoaren sorta bat dela adierazi zuen. Eta hau irakurketa- eta idazketa-gaitasun zehatzak, bereziki, kontzientzia fonologikoa, osatugabea edo zailtasun handiz garatzen direnean ematen dela esan zen. Gainera, honek, irakurketa, ortografia, notazio musikal batekin edo gehiagorekin, aritmetika eta idazketan zailtasunak ekarri ditzakeela esan zen. Eta haur gehienentzako ikasteko aukera eraginkorrak eta egokiak izan arren, zailtasun hauek iraun egiten dutela aipatu zen. Horrez gain, dislexiarekin lotutako bigarren mailako ezaugarriak agertzen direla azpimarratu zen, horien artean, entzumen-eta/edo ikusmen-pertzepzioarekin lotutako zailtasunak, epe laburreko oroimena eta plangintza eta antolaketa.

Gaur egun, Real Academia Española (2023) hiztegiak dislexiari bi esanahi ematen dizkio. Lehenak, dislexia irakurketa edo idazketa ikasteko zailtasuna dela eta hau, sarritan koordinazio motorren nahastearekin lotuta dagoela adierazten du. Bigarrenak, berriz, esanahia medikuntza aldetik ematen du, eta garuneko lesio baten eraginez, irakurtzen dena ulertzeko ezintasun partziala edo erabatekoa dela dio. Gaur egungo esanahiekin jarraituz, **DSM-ko azkeneko bertsioak** dislexiaren inguruan dioena aipatzea ezinbestekoa da. DSM V-ak 2013an, dislexia hitza erabili beharrean, ikaskuntza zailtasun-eredu ezberdinei erreferentzia egiteko (hitzak zehatz edo arin ezagutzea, gaizki letreiatzea eta ortografia-ahalmen txikia izatea) ordezkotako termino bat erabiltzen du. Terminoa ikaskuntzaren nahaste espezifikoa da eta hau diagnostikatu ostean, nahastea zein zailtasunekin duen zerikusia zehaztu behar da: irakurketan zailtasunak izatea (dislexia), idatzizko adierazpenean zailtasunak izatea (disgrafia) edo zailtasun matematikoak izatea (diskalkulia) (American Psychological Association, 2013, apud Rello, 2018).

Historian zehar, dislexia garuneko asaldura edo ikasteko zailtasun bat bezala deskribatu da, baina ikerketa berri batek dislexia, gizarteari egokitzen lagundu dion funtsezko tresna dela

iradokitzen du. Gainera, *Frontiers in Psychology* aldizkarian, Cambridgeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) ikertzaileek kontzeptu hau ez dela nahasmendutzat kontsideratu behar adierazten dute. Izan ere, dislexia duten pertsonen aurkikuntzan, asmakuntzan eta sormenean “trebetasun hobetuak” dituztela ikusi zuten (Masterson, 2023). Honekin batera azpimarratzekoa da, Jackson eta Doellinger autoreek (2002) dislexiari buruzko hipotesia defizit modura defendatzen dutela eta hipotesi hau dislexia duten adineko pertsonen egindako azterketa anitzetan oinarritzen dela. Azterketa hauetan parte hartu zuten pertsonen tratamendua jaso zuten eta irakurketa-idazketaz gainera, arazorik izan ez arren, beraien arazoak modu berdinean jarraitzen zuten (Ibidem). Halaber, Jacobson-en (1999) arabera, dislexia duten haur eta helduekin egin diren azterketa ezberdinetan defizit larri batzuk aurkitzen dira, eta horregatik, hauek ezin dira atzerapen simple batekin azaldu.

Lehen esan den moduan, dislexiari esanahi bat ematea ez da erraza. Batez ere, mundu akademikoa inplikaturako kausen eta prozesuen inguruan ez delako ados jartzen. Beraz, hartzen den definizioaren arabera, azterketako subjektuak hautatzeko irizpideak aldatu egiten dira eta honen ondorioz, emaitzak ere aldatu egiten dira (Melero, 2013).

Honek guztiak, dislexia aztertzea zaildu egiten du (Melero, 2013). Bereziki kontuan izanik askotan soilik dislexiaren alde negatiboak kontuan hartzen direla. Lehen aipatu den moduan, Masterson-ek (2023) dislexiaren inguruko onuren bat aipatzen du eta autore honekin batera, Luz Rellok (2018) *Superar la dislexia* izeneko liburuan dislexiaren indarguneen inguruan dioena aipatzea garrantzitsua da. Bere liburuan, dislexia duten pertsonen beraien gaitasunak nahaste hau ez duten pertsonen baino neurri handiago batean garatzen dituztela aipatzen du. Hau, beraien zailtasunen konpentsazioaren edo garunaren funtzionamendu desberdina dutelako gertatzen da. Indargune hauen artean ikusizko prozedura, ekimena eta sormena aurkitzen dira.

2.2. DISLEXIAREN KOMORBILIDADEAK

Dislexia nahaste ezberdinen adierazpen bat da (Baro, 2009), eta jarraian, hauen inguruko informazioa azalduko da. Dislexiaren eskutik doazen beste nahaste batzuk aipatu egin behar dira, eta horien artean, disgrafia, disortografia, arreta-defizitak eragindako arazoak hiperaktibitatearekin edo gabe, diskalkulia eta dispraxia daude.

Disgrafiarekin hasteko, esan beharra dago bi mota daudela. Gainera, disgrafia nahaste funtzional bat da eta honek idazketaren kalitatean eragina du (Garibaldi, 2015, apud Chicaiza eta Redrobán, 2017). Lehenengo motak, alderdi ezberdinetan eragina izan dezake,

horien artean, idazketaren trazaduran edo grafian, abiaduran eta presioan; hitzen eta letren arteko tartea handiegia edo txikiegia izan daiteke; letra handiegia edo txikiegia izan daiteke eta, batzuetan, hitzen arteko lotura okerrak hautematen dira (Ibidem). Hori gutxi izango balitz, ezagutza eta ideiak sortzeko eta antolatzeko eta testuaren egitura sintaktikorako, gramatika-koordinaziorako eta ideien arteko lotura egiteko zailtasunak dituzte (Silva, 2023a). Bigarrena, aldiz, formak gaizki hautematearekin eta batzuetan, espazio- eta denbora-desorientazioa eta erritmo-nahastearekin definitzen da. Disgrafia hau duten haurren idazketa-arazoak jatorriak, zurruntasun edo oldarkortasun handiegiak, trebetasun ezak, moteltasunak edo guztizko zorrotasunak izan daitezke (Equipo de Expertos en Educación, 2023).

Hurrengo nahasmendua, disortografia da eta hau hitzei eragiten dien idazketako akatsen multzoa da. Beraz, idazteko unean ematen den nahaste bat da. Pertsonak ezin dute behar bezala idatzi eta ortografia kaltetzen dute. Haur batek arazo hau duenean, batez ere, idazketan akats ortografikoak egiten ditu, baina irakurtzeko momentuan ez du zailtasunik izaten. Beste modu batera esanda, disortografia norbanakoak idazketa modu egokian egiteko duen zailtasuna da (Palomo eta Segovia, 2017).

Beste nahasmendu bat arreta-defizitak eragindako arazoak, hiperaktibitatearekin edo gabekoa da eta hau dislexiarekin gehien lotzen den nahastea dela esan daiteke (Artigas-Pallarés, 2002). Gainera, nahaste hau haurtzaroan arazo ohikoenetako bat da (Sánchez, 2021). Nahaste hau, neurogarapenaren nahaste bat da eta esparru kognitiboan eta portaeran zenbait zailtasun ditu (Servera, 2012). Nahaste honek pertsonaren ohiko garapenean, eskolan, lanean edo soziofamiliarrean eragin negatiboa izaten du (Ibidem). Kontzeptu hau duten haurrek kezka handia eta kontzentratzeko zailtasun handiak izaten dituzte, horren ondorioz, ikaskuntzan arazoak izaten dituzte (Sibón, 2010). Hori gutxi izango balitz, ezin dute era desegokian jokatzera saihestu eta adinerako heldugabeak izaten dira (Ibidem). Amaitzeko, pentsatu gabe erantzun eta jarduten dute, hau da, oldarkorrak dira (Rusca-Jordán eta Cortez-Vergara, 2020).

Hurrengo nahasmendua, diskalkulia da eta umeek gaitasun aritmetikoetan duten nahaste espezifiko bat da, baina, berez, umearen adimen-mailak aritmetika ikastea ez dio galarazten. Diskalkulia mota batzuk dislexiarekin batera egon daitezke, hau da, morbilitate elkartu handia dago. Beste modu batera esan da, pertsona batek bi nahaste hauek aldi berean izan ditzake. Hau, zerikusia duten mekanismo genetikoak inplikatzeko direlako eta irakurketa eta aritmetika ikasteko mekanismo kognitibo komunak lagungarriak direlako gertatzen da (Artigas-Pallarés, 2002).

Azken nahasmendua, dispraxia da eta hau duten pertsonak muskuluen koordinazioarekin eta mugimenduarekin zailtasunak izaten dituzte. Muskuluak, berez, arruntak dira, baina dispraxia “burmuineko kableatuaren” desordena baten eragina da. Honek, motrizitate fineko eta motrizitate lodiko trebetasunetan eragina izan dezake. Alde batetik, motrizitate fineko trebetasunetan, doitasunezko mugimenduak kontrolatzerako orduan eragina izan dezake, adibidez, eskuetan. Eta beste alde batetik, motrizitate lodiko trebetasunetan, gorputzaren mugimendu guztietan kontrolatzerako unean eragina izan dezake, esaterako, mintzamenean (Hudon, 2017).

2.3. DISLEXIA MOTAK

Dislexia mota eta sailkapen mota desberdinak daude, eta motak sailkatzerako orduan, autore askok iritzi desberdinak dituzte. Hau aintzat izanik, hasieran azalduko diren dislexia motak kontzeptuaren, sintoma motaren eta diagnostiko-unearen arabera oinarrituta egongo dira. Eta ondoren, beste batzuk gehituko dira.

Kontzeptuaren barruan dauden dislexiak hiru direla esan daiteke. Lehenik eta behin, hartutako dislexia dago eta hau garunean lesio bat jasan ostean gertatzen dena da. Bigarrena, irakurtzeko trebetasuna eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak daude eta honi dislexia ebolutiboa deritzo. Azkena, irakurle-atzerapena da eta hau adimen-urritasuna, eskolatzeko txarra, eta beste hainbeste bezalako arrazoi ezberdinek eragindako irakurketa-nahastea dela esan daiteke (Ramírez, 2011).

Sintomaren arabera antolatuta dauden dislexia motak, bi direla esan daiteke (Ramírez, 2011). Alde batetik, dislexia fonologikoa dago eta hau bide fonologikoak, zeharkakoak edo entzumenekoak gaizki funtzionatzen duenean ematen da. Bide hau, lexikora iristeko grafema-fonema bihurtzeaz arduratzen da. Hau da, bide honen funtsa letrak beren soinuarekin lotzea da. Gainera, bide fonologikoan defizit bat dagoenean, pertsona horrentzako ezagunak ez diren hitzak deskodetzea zaila izango da (Change Dyslexia, 2023b).

Beste alde batetik, multzo honetan dislexia bisuala edo azaleko dislexia dago (Tamayo, 2017). Kasu honetan, ikus-bideak edo zuzeneko bideak gaizki funtzionatzen du. Ikus-bidearen bidez, pertsona batek globalki irakurtzen du eta ez hitza zatikatua. Beraz, ibilbide hau kaltetua badago, hitz irregularrak irakurtzeko unean zailtasunak izango ditu. Beste modu batera esanda, pertsona horrek hizkuntza jakin baten ebakuntza-araudiarekin

bat ez datozen hitzekin arazoak izango ditu. Gainera, hizkuntzen gardentasun-maila ezberdinak dituzte (Change Dyslexia, 2023b). Sistema ortografiko opakoena duten hizkuntzetan, grafemaren (hizkia) eta fonemaren (soinua) arteko korrespondentzia ez da oso erregularra izaten. Hizkuntza hauetan, dislexiaren adierazpenak irakurketako eta idazketako akatsekin lotura handiagoa izaten dute. Adibidez, ingelesa hizkuntza opakoa da. Aitzitik, ortografia gardenagoak dituzten hizkuntzetan, akatsak ez dira horren ohikoak izaten. Horrez gain, beste faktore batzuk ere aintzat hartu behar dira, horien artean, arintasuna, abiadura eta irakurketaren automatizazioa. Hizkuntza gardenak adibidez, gaztelania eta euskara dira (Rello, 2018).

Serrano eta Defior-ek (2004) aipatu berri diren bi dislexia mota hauek dislexiko-talde misto modura aurkitu daitezkeela esaten dute. Hau da, bi motetako defizitak aldi berean eduki daitezke (fonologikoa eta azalekoa).

Diagnostiko-unearen arabera multzokatuta dauden dislexiak bi direla esan daiteke. Lehena dislexia espezifiko da eta hau pertsona batek irakurtzen ikasten hasten denean agertzen da. Bigarrena, ulermen-dislexia da eta hau irakurtzen ikasi ondoren agertzen dena da, izan ere, pertsonak irakurtzen duena ulertzeko ezintasuna du. Dislexia mota hau batzuetan arrazoi ezberdinengatik ez da diagnostikatzen, horietako bat, adimen handiko pertsonekin nahasten delako da. Nahaste honekin dislexia konpentsatu edo maskaratu egiten da, baina ondoren, testu akademikoak ulertzeko eskaera gero eta handiagoa bilakatzen denean, dislexia agerian geratzen da (Ramírez, 2011).

Aipatutako kategoria hauetaz gain, dislexia beste hiru motatakoa izan daitekeela ere azpimarratu behar da. Lehena, difasikoa da eta hau irakurketan eta idazketan ematen diren nahastura disfasiarekin lotuta dago. Hau ohikoena izaten da, eta pertsonaren idatzizko hizkuntza hitz egiten duenaren oso antzekoa izaten da. Izan ere, paragrafiak aurkezten dituzte eta eduki semantikoa ez duten hitz gramatikalak erabiltzen dituzte, eta gainera, irakurketan paralexia ugari izaten dituzte. Bigarrena, ez-disfasikoa da eta bertan irakurketaren eta idazketaren nahastura gertatzen da, baina kasu honetan, disfasiarik gabe. Beste mota hau zirkunboluzio angeluarrean lesio bat dagoelako ematen da, eta pertsonak letretako, hitzetarako eta zenbakietarako dislexia dute. Hori gutxi balitz, irakurketaren ulermena murriztuta dago, disgrafia dute eta ezaugarri ezberdinak dituzte, horien artean, ezkerretik eskuinera desorientazioa, diskalkulia eta eraikuntzako dispraxia. Hirugarrena, purua da eta hau irakurketaren nahaste eksklusiboa dela esan daiteke (López-Tejeda, Uribe Viquez, Villarruel Rivas, Mendoza-Barrera eta Durand-Rivera, 2012).

Behin dislexia multzo ezberdinak azalduta, zailtasun hau duten pertsona gehienek entzumen-/fonologia, bisoespazio- edo psikomotore-gabeziren bat dutela esan beharra dago (Ayuso, 2012).

Dislexia alterazio bisoespazial eta mugimenekin duten pertsonak honako arazo nagusi hauek izan ditzakete: ispilu-idazkera, nahasteak eta idazteko inbertsioak, idazkeraren alterazioa pertzepzio- eta mugimendu-nahasteak eta mugimene baldartasuna (Baro, 2009).

Eta dislexia funtsean hitzezko eta erritmoko alterazioak dituzten pertsonak honako nahasmendu nagusi hauek izaten dituzte: hizkuntzaren nahasteak, adierazpen-pobrezia, idazteko zailtasuna, inbertsioak, hitzezko jariakortasun txikia, arau sintaktikoen ulermen txikia, eta beste hainbeste (Baro, 2009).

Atal honekin amaitzeko, dislexia ez dela arazo homogeen bat eta aldi berean dislexia mota bat baino gehiago egon daitezkeela aipatu beharra dago (López-Tejeda, Uribe Viquez, Villarruel Rivas, Mendoza-Barrera eta Durand-Rivera, 2012).

2.4. DISLEXIAREN EZAUGARRIAK

Dislexia duten hurren ezaugarri ezberdinak dituzte eta jarraian, ezaugarri orokorrak, espezifikagoak eta ondoren adinaren eta maila ebolutiboaren arabera azalduko dira. Ezaugarri orokor batzuk honako hauek dira (Álvarez, 2018, apud Mera eta Moya, 2019):

- Hitzak eta soinua ebakitzeko, ezagutzeko eta elkartzeko zailtasunak dituzten haurrak daude. Honek, mezua behar bezala deskodetzeko ezintasuna ekartzen du.
- Irakurketa ulertzeko zailtasuna du.
- Irakurketa momentuan ahots tonuaren erabilera desegokia eta hitzak behar bezala taldekatzeko zailtasuna du.
- Zenbaki, sinbolo eta letrak ordena egokian idazteko eragozpena du.

Bestalde, beste autore batek beste honako ezaugarri hauek aipatzen ditu (Carratalá, 2013, apud Mera eta Moya, 2019):

- Zehaztasun akatsak egiten ditu: letren eta ordenaren nahasketa, letra edo hitzen inbertsioak, gehikuntzak, omisioak eta ordezkapenak.
- Irakurketa motela, neketsua, erritmo eta intonaziorik gabea da.
- Ortografiarekin eta letreiatuarekin arazoak ditu.
- Oinarrizko kontzeptuak ikasteko zailtasuna (hilabeteak, koloreak, etab.) du.
- Batzuetan, irakurritakoa ez du ulertzen.

- Epe laburreko oroimenean zailtasuna eta arreta lortzeko zailtasuna ditu.
- Grafian zailtasunak ditu.
- Lateralitatea aldatzen du.

Horrez gain, Asociación Dislexia Euskadi (2023) izeneko webgunean dislexiaren inguruko sintoma espezifikoak azaltzen dira eta hauen sailkapena honako hiru zatietan egiten da:

- Irakurketa:
 - Atzerriko hizkuntzak ikasteko zailtasun handia du.
 - Hizkiak edo silabak gehitzen, kentzen eta alderantzikatzen, eta hitzak banatzen edo elkartzen ditu.
 - Batzuetan, irakurtzen ez duena ez du ulertzen, baina ez du arazorik ahoz azaltzean.
 - Hizki edo zenbakietan, hitzetan edo aditzen ordenei lotutako hizki eta soinuak identifikatzeko zailtasunak ditu.
- Idazketa:
 - Ortografia akats ugari egiten ditu.
 - Arkatza era desegoki batean eusten du.
 - Diktaketetan eta kopietan akatsak egiten ditu, bereziki, argizariaren kopiak.
 - Idazkera batzuetan ulertezina eta desordenatua izaten da.
- Matematika eta kalkulua:
 - Matematika problemak konpontzeko zailtasunak ditu.
 - Biderkatzeko taulak oso zailak dira.
 - Hatzekin zenbatzen du.
 - Dirua erabiltzeko eta ordua ikasteko zailtasunak ditu.
 - Sekuentziekin zailtasunak ditu: asteko egunak, eguneko zatiak, urtaroak, aldi bateko nozioak (goiza, arratsaldea, gaur, atzo...), eta beste hainbeste.

Halaber, irakurtzerako orduan, hitzen azentuazioarekin arazoak izaten dituzte, eta horregatik ez dituzte hitzak beren azentuazioaren arabera zuzen irakurtzen (Silva, 2023b). Horrez gain, aipatu beharreko beste zailtasun bat lateralitate gurutzatua da. Hau, lateralitatea alde batean ondo definituta ez dagoenean eta koordinazioan eta orientazio espazialean zailtasunekin lotzen denean gertatzen da (Rello, 2018).

Orain arte, dislexiaren ezaugarriak modu orokorrean eta espezifikoan aipatu dira, baina jarraian, dislexiaren sintomatologiak pertsonaren adinaren eta maila ebolutiboaren arabera azalduko dira. Dislexia haurtzarotik hasten dela kontuan hartuta, haurraren garapen-etaparen arabera sintomak aldatu egiten dira. Beraz, eskola-etaparekin zerikusia

duen hainbat tipologia identifikatu daitezke. Azkenean, ikaskuntza-zailtasunak nabarmen eragiten dute (Álvarez eta Correa, 2021). Llopis, de Pablo eta Fernandez-ek (1989) lehenengo maila ebolutiboa, 3 eta 6 urte artean dagoela esaten dute. Adin tarte honetan, aurre-irakurketa eta aurre-idazketa kokatzen dira eta hauetan hizkuntza eta hizketan oinarritzen diren adierazpen nagusiak daude. Adierazpen hauek, artikulazio, hitzezko adierazpen urri eta hiztegi urriko arazoekin erlazionatzen dira. Honekin batera, aipatu beharra dago, kasu batzuetan, hizkuntzan eta ikaskuntzan eta gorputzaren egituraketan eta ezagutzan, atzerapenak izan ditzaketela. Eta gainera, soinuak identifikatzeko, letrak idazteko eta ezagutzeko zailtasunak izan ditzakete. Hori gutxi izango balitz, formak, koloreak edo tamainak elkartzeko eta integratzeko ere zailtasunak izan ditzakete.

Bestalde, hurrengo maila ebolutiboa, 6 eta 9 urte bitarteko adina da (Álvarez eta Correa, 2021). Etapa honetan, alfabetoa ozen irakurtzeko, errima arruntak egiteko, hizkiak modu egokian izendatzeko eta soinuak aztertze edo kategorizatze (entzumen-zolitasuna normala izan arren) zailtasunak egon daitezke (López-Tejeda, Uribe Viquez, Villarruel Rivas, Mendoza-Barrera eta Durand-Rivera, 2012). Horrez gain, arreta jartzeko eta kontzentratzeko zailtasuna, mugitzeko gaitasun gutxi, letrak eta hitzak ez sartzea, irakurtzerako momentuan ondoeza sentitzea, ispiluan idaztea eta testuan konexio gutxi egitea ere eduki ditzakeen beste zailtasun batzuk dira (Álvarez eta Correa, 2021). Adin tarte honekin amaitzeko, ahozko irakurketan akats ugari agertu daitezke (hitzak edo honen zatiak ez aipatzea, ordezkatzeta, distortsionatzea edo gehitzea) eta irakurketaren ulermenaren defizita ere agertu daiteke (irakurritakoaren inguruan oroitzeko ezintasuna eta irakurritakoari buruzko ondorioak edo inferentziak ateratzeko ezintasuna) (López-Tejeda, Uribe Viquez, Villarruel Rivas, Mendoza-Barrera eta Durand-Rivera, 2012).

Hirugarren maila ebolutiboa, 9 eta 12 urte bitarteko adinean kokatzen da, eta umeek beraien adierazpenean pobrezia dute, hitzezko ulermen gutxi dute, esaldiak behar bezala egiteko zailtasunak dituzte, irakurketa, kaligrafia ez erregularra eta esaldien identifikazio eta egituratze eskasa dute eta espazio- eta denbora-orientazioko, mugimendu zehatzen koordinaketako eta kontzentratzeko zailtasunak dituzte (Álvarez eta Correa, 2021).

Azken maila ebolutiboan, hau da, laugarrenean, 12 eta 16 urteko nerabeak daude. Hauek hirugarren mailan dauden zailtasunak mantentzen jarraitzen dituzte eta idazketan eta irakurketan errendimendu baxua dute (Álvarez eta Correa, 2021). Horrez gain, ez dituzte hitz zuzenak aurkitzen, irakurtzean edo idaztean kontzentrazio-arazoak izaten dituzte, taldeko kide izatea asko kostatzen zaie, jokabide txarrak areagotu egiten dira eta giro berrietara gaizki egokitzen dira (Change Dyslexia, 2023d).

2.5. DISLEXIA LEHEN HEZKUNTZAKO HAURRENGAN

Txostenaren atal honek bi azpiatal ditu, lehena, dislexiaren prebalentzia haurrengan da eta honetan, prebalentziaren inguruan hitz egingo da. Eta bigarrena, aldiz, dislexiaren ondorioak haurrengan da, eta honetan nahaste honek umeengan izan ditzakeen ondorioetaz hitz egingo da.

2.5.1. DISLEXIAREN PREBALENTZIA HAURRENGAN

Irakurketa-prozesamenduaren prozesu garrantzitsu eta erabakigarrienak ebaluatzeko tresnak prestatzea ezinbestekoa da, irakurketa ikasteko zailtasunak dituzten pertsonak aztertzeko eta hauen lehentasuna ezartzeko. Honekin batera, aipatu beharra dago, dislexia duen biztanleria identifikatu ostean, populazioa homogeneoa den ala ez jakitea ezinbestekoa dela. Hau da, defizit bat edo defizitak kasu guztietan mota berdinekoak diren ala ez edo graduan desberdintasunak egon daitezkeen edo motan edo moduan bakarrik diren ala ez jakitea ezinbestekoa da (Carrillo, Alegría, Miranda eta Sánchez, 2011).

Hau guztia jakiteko, dislexia duten haurren inguruko prebalentzia nolakoa eta zein motatakoa den jakitea garrantzitsua da. Jarraian agertuko diren dislexia-prebalentziaren emaitzak Espainian egindakoak dira eta hauek hiru toki ezberdinetan burutu dira. Hasteko, Murtziako Eskualdean egindako ikerketa dago eta bertan, 2011.urtean Lehen Hezkuntzako *bi mila ume baino gehiagoko* laginarekin eginik, prebalentzia %11,8koa dela adierazten da. Horrez gain, Kanariar Uharteetan egindako ikerlanean, Lehen Hezkuntzako *mila eta berrogeita hamar ikasleko* lagina kontuan hartuta, ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten haurrak %8,6 direla esaten da, eta dislexiaren-estimazioa %3,2. Amaitzeko, Madrilgo Autonomia Erkidegoan, *mila zortziehun umetatik gorako* lagina eta ikastetxe publiko ezberdineko ikasleak erabiliz, dislexiaren-prebalentzia %5etik %8,4ra bitartekoa dela adierazten da (Rello, 2018).

Irakurketaren nahaste espezifikoaren prebalentzia-azterketei buruzko literaturaren berrikuspenak, diagnostikorako erabilitako metodologiak oso ezberdinak direla adierazten dute. Hauek azkenean, kontsultatutako ikasketen emaitzetan aldaketa handiak eragiten ditu (Carrillo, Alegría, Miranda y Sánchez, 2011). Literaturan, prebalentzia emaitzak ezberdinak izatearen beste faktore bat irakurketa-hizkuntzaren gardentasun edo opakotasun ortografikoaren eraginean dagoela esan daiteke (Wydell, 2012). Hau, grafemen eta fonemen arteko korrespondentzia erregularra eta unibokoa ez den hizkuntzetan gertatzen da (Ibidem), eta honen adibide bat ingelesa da (Cubilla-Bonnetier, Solís-Rodríguez, Farnum eta Caballero, 2020). Esandako guztia aintzat hartuta, dislexiaren prebalentzia emaitzak

aldakorrak dira, eta hau lehen aipatu diren ikerketetan ikusi daitezke. Izan ere, hauetan haurrek dislexia izateko prebalentzia %3,2tik %11,8ra bitarte dagoela agertzen da.

Orain arte aipatutako datuak duela urte batzuetakoak dira, baina gaur egun, estatu mailan dislexia-prebalentziaren inguruko datuak ematen dituzten ikerketak ez daudela aintzat hartu behar da (De los Reyes, Lewis, Mendoza, Neira, León eta Peña, 2008). Amaitzeko, dislexia duten subjektuak ikaskuntzaren nahastearen diagnostikoen %80-a dira eta eskolatutako haurren %2-8k bakarrik lehentasuna dute (ASANDIS, 2023). Datu honek, pentsatzea egiten du, azkenean, ehunekoa oso baxua izateaz gain, oso deigarria delako.

2.5.2. DISLEXIAREN ONDORIOAK HAURRENGAN

Lehen aipatu den moduan, dislexia ikasteko zailtasun espezifikoek barruan kokatzen da, eta horregatik, multzo honen barruan dauden zailtasun bat izateak, haurrengan izan ditzakeen ondorioak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa da. Hau kontuan hartuta, jarraian, ikasteko zailtasun espezifikoek umeengan dituzten hainbat ondorio aipatuko dira.

Lehenik eta behin, multzo honekin lotutako zailtasunak dituzten pertsonen, bizitzan zehar autoestimua eza eta eraginkortasun eza izan ditzakete eta frustrazioa, antsietatea eta motibazio gutxi sentitu dezakete. Hauek guztiak, ikasketa-egoerei aurre egiterako momentuan izandako porrotaren eragina dira (Zuppardo, Serrano eta Pirrone, 2017).

Dagoeneko, ikasteko zailtasun espezifikoekin lotutako zailtasunak dituzten ikasleek autoestimua eza edo baxua dutela aipatu da, baina ikerketa ezberdinek aipatu dute eskolako autoestimua edo ikasleen autoestimua ez dela berdina (Zuppardo, Serrano eta Pirrone, 2017). Zelekek (2004) metadatu-analisi bat egin zuen eta ikerketen %89ak erakutsi zuen multzo honetako zailtasunak zituzten ikasleek autoestimua akademiko baxuagoa zutela. Baina, ikerketen %70ak ikasteko zailtasun espezifikoak zituzten ikasleek gainontzekoen autoestimua sozial berdina zutela adierazi zuten. Honen azalpen argi bat, ikasle guztiek ez dituztela ezaugarri berdinak izan daiteke.

Gainera, emozio eta sentimendu negatiboek ikaskuntzan eragin kaltegarriak izan ditzake. Hau hobeto ulertzeko, adibide bat jarriko da: ikasle baten gehiegizko antsietateak, oroimenean edo lan bat egiterako unean eragin handia izan dezake (Eysenck, Derakshan, Santos eta Calvo, 2007). Eta emozio positiboek, aldiz, ikaskuntzan hobekuntzak ekartzen dituzte (Zuppardo, Serrano eta Pirrone, 2017).

Esandako guztiarekin batera, dislexiak haurrengan dituen beste ondorio batzuk jakitea ezinbestekoa da. Honek, umeengan eragin handia izan dezake, azkenean, ikaskuntza prozesuan hurrek ikasketekiko motibaziorik gabe egoten dira eta autoestimua baxua izaten dute (Scrich, Cruz, Bembibre eta Torres, 2017). Askotan, gainontzeko ikasleek baztertu egiten dituzte eta adimen-atzerapena dutela pentsatzen da. Honekin batera, familiaren zein irakasleen jarrera aipatzea garrantzitsua da. Maiztasun handiarekin haurrak eboluzio-atzerapen hutsa duela edo alfer bat dela pentsatzen dute eta hau, haurrei aurpegiatu egiten zaie. Honek guztiak, ondorio handiak ekarri ditzake haurren nortasunean, horien artean, arreta erakartzeko kalifikazioarekiko jarrera disruptiboak erakustea edo depresiotik gertu dagoen inhibizio eta ezkortasunean hondoratu daiteke. Gainera, batzuk eskolan kalifikazio baxuak izaten dituzte (Ayuso, 2012).

Amaitzeko, neurozientzietako eta hezkuntzako adituek Espainiak %20-25 inguruko eskola-porrota duela esaten dute. Eta aipatutako ehuneko hau, arreta-nahaste eta hiperaktibitatea, dislexia eta gaitasun handiak dituzten ikasleen ehunekoaren antzekoa dela esan beharra dago (Change Dyslexia, 2023a). Eta datu hau oso deigarria dela esan daiteke.

2.6. SISTEMA ETA DISLEXIA

Lanaren atal honetan, hezkuntza sistema eta dislexiaren inguruan hitz egingo da, zehazki, sistema juridikoaren eta hezkuntza sistemaren laguntzen eta ikastetxearen laguntzen inguruan hitz egingo da.

2.6.1. SISTEMA JURIDIKOAREN ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN LAGUNTZAK

Sistemak dekretuetan ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei bideratutako hainbat artikulua dituzte. Hau kontuan izanik, sistemak aipatzen dituen artikulua hauek aipatzea ezinbestekoa da eta honako hauek dira (RD, 157, 2022):

- 6. artikulua. Printzipio metodologikoak:
 - Etapa honetan, bereziki, honako ezaugarri hauei arreta berezia jarriko zaie: hezkuntza-inklusiboa bermatzea, ikasleei eta beraien ikaskuntza-beharrei arreta pertsonalizatua ematea, bizikidetzeta eta parte-hartzea, ikasteko zailtasunei aurrea hartzea eta errefortzu- eta malgutasun-mekanismoak, alternatiba metodologikoak edo bestelako neurri egokiak abian jartzea, egoera hauetako edozein hauteman bezain laster.
- 18. artikulua. Ikasteko zailtasun bereziak dituzten ikasleak:

- Ikasteko zailtasun bereziak dituzten ikasleak identifikatzeko eta haien beharrak goiz baloratzeko asmoarekin, hezkuntza-administrazioek behar diren neurriak hartuko dituzte.
- Ikasle horien eskolatzea normalizazio- eta inklusio-printzipioen arabera arautuko da. Gainera, diskriminazioa jasango ez dutela eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta bertan egoteko berdintasun eraginkorra bermatuko da.
- Hezkuntza administrazioak adierazten duen moduan eta ahalik eta azkarren, ikasteko zailtasun bereziak dituzten ikasleen identifikazioa, balorazioa eta esku-hartzea egingo dira.

Aipatu diren artikuluez gainera, jarraian azaldu den artikulua jakitea garrantzitsua da (Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación):

- II. kapitulua. 55. artikulua:

- Administrazioek hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatuko dute, denentzako hezkuntza-kalitatea, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatzeko asmoarekin. Gainera, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo bestelako arrazoi ezberdinengatik banandu ez daitezzen, behar diren neurriak hartuko dituzte. Hori lortzeko, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatu behar diren hezkuntza-laguntzaren premia espezifikoak duten ikasleen proportzio orekatua ezarriko dute eta ikastetxeek laguntza hori emateko, behar dituzten baliabide pertsonal eta ekonomikoak bermatuko zaizkie. Modu berean, ikastetxe batean ezaugarri hauek dituzten ikasle kopuru altua dagoenean, hartu beharreko neurriak ezarriko dira eta neurri hauek ikasle guztien berdintasun-baldintzetan hezkuntza-eskubidea bermatzeko izango dira.
- Ebaluazio arruntaren zein bereziaren ondorioz, hezkuntza-administrazioek aurre inskripzio- eta matrikula-aldia amaitu arte, ikastetxe publikoetako plazen zati bat eta ikastetxe pribatu itunduei baimendutakoen zati bat, hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen eskolatzea errazteko eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, erreserbatu egin beharko dizkiote. Aipatutako erreserba hauek ikasturtea hasi arte mantenduko dira.

Artikulu hauen arabera, bai hezkuntza-administrazioek baita ikastetxeek ere, hezkuntza-laguntza behar duten ikasleei laguntza ezberdinak eman behar dizkiete. Honekin

batera, irakasleen etengabeko prestakuntza-eskaintza dagoela aipatzea ezinbestekoa da. Eskaintza hau erakundeen sare baten bitartez egiten da. Eta gainera, autonomia-erkidego guztietan gai honi lotutako erakunde ezberdinak daude. Horrez gain, erakunde batzuk lankidetzeta-hitzarmenen bitartez, hezkuntza-administrazioek prestakuntza-jarduerak eskaintzeko diru-laguntzak jaso ditzakete (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2012). Etengabeko prestakuntzako programek irakaskuntzaren kalitatea eta ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko honako alderdi hauetara egokitzen direla kontuan hartu behar dituzte: ezagutzak eta metodoak zientzia eta didaktika espezifikoaren bilakaerara, koordinaziora, orientaziora, tutoretzara, hezkuntza inklusibora, aniztasunarekiko arretara eta antolaketara (Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación).

Aipatutako etengabeko formakuntza ezinbestekoa da, dislexia duten ikasle askok irakurketa eta idazketa ariketa praktikoen bitartez sintomak erakusten dituztelako eta hauek irakasleek identifikatu ditzakete. Baina, gaur egun, irakasleek ez dituzte ezaugarriak detektatzeko informazio edo tresna egokirik. Horregatik, irakasleek dislexiaren inguruan ulermen egokia izan behar dute. Azkenen, ikasleari dislexia duela garaiz antzemango zaio eta ikasteko trebetasunak indartuko dira (Álvarez eta Correa, 2021). Hau guztia jakinik, irakaslearen formakuntza arlo honetan ezinbestekoa dela esan daiteke.

2.6.2. IKASTETXEAREN LAGUNTZAK

Sistemaren laguntzak alde batera utziz, jarraian ikastetxeak eman behar dituen laguntzak eta egokitzapenen inguruan hitz egingo da.

Hasteko, ikasleak eskola-bizitzan ziklo batetik beste batera eta etapa batetik beste batera igarotzean aldaketa ezberdinak sumatu ditzakete, eta horien artean, irakaslea, metodologia, ikastetxea eta taldekatzea daude. Gainera, askotan aldaketa hauek ikasle guztientzako zailak izaten dira, baina irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako zailagoak izaten dira. Horregatik, ziklo edo etapa batetik bestera igarotzerako momentuan kontuz ibili behar da eta modu egoki batean egin behar da. Horrela, ikasleekiko egokitzapena erraztuko da (Eusko Jaurlaritza, 2010).

Horrez gain, ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleen esku-hartzean parte hartzen duten profesionalak zeintzuk diren jakin behar da. Hezkuntza-administrazio guztiek, *tutorea* ikasteko zailtasun espezifikoetan parte hartzen duten profesionalak direla kontsideratzen dute. *Gainontzeko irakasleei* dagokienez, Lehen Hezkuntzan esku hartzeko eragileztat hartzen direla esan beharra dago. Beste profesional bat *orientatzailea* da, baina honek,

bereziki, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, esku-hartzean protagonismoa galtzen du. Hori gutxi izango balitz, *Pedagogia Terapeutikoko espezialistak* daude eta laguntzako irakasle hauek, administrazio gehienek esaten duten moduan, esku-hartzean oso garrantzitsuak dira. Azkenik, *Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak* daude eta administrazioek dioten moduan, hauen presentzia lehenengo etapetan ia garantizatuta dago (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2012).

Bestalde, ezinbestekoa da erakustea dislexia baldintza sendaezina dela. Eta ikaskuntza- eta eskolatzeko-prozesuan hobetzeko diseinatutako estrategia- edo tresna-zenbakirik gabe aplikatu behar da. Azkenean, eskola-adinean baldintza hau ikasleengan aurkeztea ohikoa izaten da (Mera eta Moya, 2019).

Horretaz aparte, Eusko Jaurlaritzak (2010, 46 or.) ikastetxeak dislexia duten ikasleekin egokitzapen ezberdinak egin behar direla aipatzen ditu. Lehenik eta behin, *hezkuntza indartzeko neurriak* hartu behar direla aipatzen ditu. Eta bigarrenik, *materiala, metodologia* eta *ebaluazioaren* aldetik egokitzapen ezberdinak egin behar direla azaltzen ditu.

Gaur egun, ikasteko zailtasunak dituen ikasleak ikasturtea errepikatzeak, bere zailtasunak hobetzen lagunduko ez duela esaten da. Hau egitean, ikasleak pedagogikoki ez ditu abantailarik izango eta emozionalki desabantaila handia izango du. Gainera, ikasturtea errepikatzearen eta eskola uztearen artean, zuzeneko harremana dagoela aipatu beharra dago. Hori gutxi izango balitz, errendimendu txikiagoa, norbanakoaren autokontzeptu baxuagoa eta eskolaren aldeko jarreran ere eragina izan dezake. Ikasteko zailtasunak hobetzen lagunduko dutena, profesional baten esku-hartzea eta ikastetxean egin beharreko egokitzapen metodologikoak izango dira (Federación Española de Dislexia, 2019, apud DISFAM, 2023a).

Aurretik azaldu den moduan, Eusko Jaurlaritzak (2010) egokitzapen ezberdinak aipatzen ditu, eta bereziki, bigarrena sakontasunez ikustea komenigarria da. *Materialen* egokitzapenei dagokienez, ezagutza lortzeko zailtasunak dituzten ikasleei tresna teknologikoak erabiltzea lagungarria da. Horrez gain, ordenagailuak erabiltzea beste moldaketa bat da, honen bitartez, ortografia akatsak zuzentzeko zuzentzaile automatikoa erabiltzeko aukera dagoelako. Hori gutxi izango balitz, beste egokitzapen bat, ikasleak bere ahotsaren bitartez iradokitzen duena idazten duen eta informazioa errazago lortzeko testu idatziak irakurtzen dituen programak erabiltzea da. Azkenik, ikus-entzunezko materiala edo material digitala erabiltzea eta hizki argia eta zabalaz idatziriko materialak erabiltzea, aipatzen diren beste moldaketa batzuk dira.

Metodologiaren harira, ikasleen parte-hartzea bultzatzen duten metodologia inklusiboak erabiltzea, aipatzen den egokitzapen bat da. Gainera, ikasleei hitzezko eta ikusizko informazioa ematea eta jarraibideak urrats sekuentzietan aurkeztea eta irakurtzea, beste moldaketa bat da. Aipatzen den beste egokitzapen bat, ikasleek gaiak garatzen jarraitzeko eta ondoren informazioa modu errazago batean gogoratzeko, eskemak eta/edo gidioiak ematea da. Honekin batera, ikusizko planning-a aipatu beharra dago. Izan ere, ikasleei zeregin garrantzitsuetaz gogoratzeko ordutegiak, egutegiak eta agendak erabiltzea lagungarria da. Azken egokitzapena, denbora malgutzearekin zerikusia du. Ikasleei beraien pentsamendua antolatzen eta lanak egiteko denbora gehiago eman behar zaie, zailtasunak dituztenez lan arinagoa eta laburragoa emanez, oinarrizko gaitasunak lortuko dituztela bermatuz (Eusko Jaurlaritza, 2010).

Materiala eta metodologia alde batera utziz, jarraian *ebaluazioaren* inguruko moldaketen inguruan sakonduko da. Lehenik eta behin, ebaluazioa ikasleen ezaugarrietara egokitzeaz gain, ikasleak behar dituen material osagarriak erabiltzea eta ahozko azterketak egitea aipatzen da. Honekin batera azpimarratu beharra dago, ikaslearengan eragina duten profesional guztiak prozesuan inplikatzeko ezinbestekoa dela, denek egokitzapenak egiteko. Horretaz aparte, ikasleak bere buruaren hasierako mailarekin alderatuta, eremu defizitarioetan izandako aurrerapausoak ebaluatzea beste moldaketa bat da. Azterketei dagokienez, material idatzia grafikoki edo irudiekin laguntzea, denbora malgutzea eta idatzizkoetan aurkezpen formatua zaintzea (tamaina, hizki mota eta tartea...) beste egokitzapen batzuk dira. Amaitzeko, ikaslearen erantzunen edukia ez dela soilik ortografia edo testuaren konposizioaren arabera baloratuko, beste moldaketa bat da (Eusko Jaurlaritza, 2010).

Egokitzapenei amaiera emateko, DISFAM-ek (2023b) gelan eguneroko lana egiteko egokitzapen orokor ez-esanguratsu batzuk aipatzen ditu eta hauek, taldean lantzen diren eduki berberak modu ezberdin batean lantzeko, ikasteko eta ikasitakoa frogatzeko aukera ematen diete. Bertan azaltzen diren egokitzapen batzuk, honako hauek dira: ikasleak huts ez egin arte itxaron gabe, irakasgai guztietan egokitzapen ez-esanguratsuak ezartzea; zuzenketak gorri egitea saihestea; ortografia akats guztien zuzenketa sistematikoa saihestea; arbelaren kopia saihestea; hizki larriak edo nahasiak erabiltzeko aukera ematea; kalkulagailua eta hiztegia erabiltzeko baimena ematea; testu liburuetan idazteko, marrazteko edo azpimarratzeko aukera ematea; paper mota hautatzeko aukera ematea (koadroak, hutsuneak, lerroak...); lanarekin hasi aurretik ulermen ona egon dela ziurtatzea eta prestatutako diktaketak egiteko gai dela ziurtatzea.

3. HELBURUAK

Dagoeneko irakurtzeko zailtasunak dituen ikaskuntzaren nahaste espezifikoen inguruko informazio ugari eman da. Hori ardatz izanik, jarraian, lanaren helburu nagusiak eta azpi-helburuak azalduko dira:

- Dislexia duten ikasleen esperientziak jakitea, egoera ezberdinak aztertuz, ikasleek behar dituzten egokitzapenak eta laguntzak jasotzen dituzten ala ez jakiteko.
 - Gurasoek beraien seme-alabek jasotzen dituzten egokitzapenen eta irakasleen formakuntzaren eta ezagutzen inguruan dituzten pertzepzioak jasotzea, iritzi guztiak kontuan izanik, beraien seme-alabek jasaten dutena jakiteko.
 - Gurasoek beraien umeen ikaskuntza-zailtasunen inguruko informazioa plazaratzea, inkestan egindako galdera anitzen bitartez, sistema juridikoak aipatzen dituen eta ikastetxeak eman behar dituen laguntzak jasotzen dituzten ala ez eta hauek nolakoak diren jakiteko.
- Informazio gida bat ahalik eta osatuen sortzea, informazio iturri ezberdinak erabiliz, irakasleek dislexiaren inguruan dituzten ezagutzak aberasteko.
 - Irakasle gida burutzea, informazio ugari erabiliz, irakasleek dislexia duten haurren beharrei modu egokian erantzuteko.
 - Informazio gida sortzea, informazio iturri ugari erabiliz, irakasleek dislexia duten haurrei egokitzapen egokiak egiten jakiteko.
 - Informazio gida egitea, informazio ezberdina erabiliz, irakasleek dislexia duten haurrei laguntza zuzenak ematen jakiteko.

4. I KAPITULUA. GURASOEN PERTZEPZIOAK

Ikastetxe askok, ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasleei behar dituzten laguntzak eta egokitzapenak ematen dizkietela adierazten dute. Hau kontuan hartuta, gurasoek honen inguruan duten pertzepzioa nolakoa den jakitea garrantzitsua da. Beraiek ikastetxeek esaten dutenarekin bat etorriko dira ala ez?

4.1. METODOLOGIA

Atal honetan, lan hau aurrera eramateko burutu den galdetegiaren inguruko xehetasun guztiak emango dira.

4.1.1. LAGINA

Lan honetan burutu den inkesta bete duten gurasoek, gutxienez, ikaskuntza-zailtasunak dituzten seme edo alaba bat dute, horregatik, inkesta betetzeko parte-hartzaile egokiak izan dira. Inkesta guztira 58 aldiz bete da eta parte-hartzaileak Espainiako probintzia

ezberdinetakoak dira (Nafarroa, Bartzelona, Badajoz eta Salamanca). Guraso batzuk, agian, ikaskuntza-zailtasunak dituzten seme edo alaba bat baino gehiago dituzte. Beraz, hauen kasuan, inkesta behin baino gehiagoetan egitea gomendatu da. Izan ere, haur batetik bestera, ikaskuntza-zailtasunen ezaugarriak oso ezberdinak izan daitezke. Galdetegia bete duten guztietatik, ikaskuntza zailtasunak dituzten haurren %62,06a mutilak dira eta %37,94a neskek dira. Beste modu batera esanda, 36 mutil eta 22 neska daude. Ume hauei ikaskuntza zailtasun bat edo beste diagnostikatuta dituzte, eta diagnostiko hau 6 eta 9 urte artean egin zaie, hau da, lehen hezkuntzako 1.mailatik 4.mailara bitarte egin zaie, eta gehienak, 3 mailan egin dira. Ikaskuntza zailtasun ezberdinen inguruan galdetzean, gurasoek beraien seme-alaben %98,27ak dislexia duela adierazi du, eta horrez gain, beste zailtasun batzuk dituztela ere azaldu dituzte, adibidez, disortografia, disgrafia, diskalkulia, eta beste hainbeste.

4.1.2. TRESNA

Ikerketa hau egiteko sortu den galdetegia 23 galderez osatuta dago eta hau bi hizkuntzetan egin da, euskaraz (1. eranskina) eta gazteleraz (2. eranskina). Modu honetan, inkesta betetzeko parte-hartzaile gehiago lortu dira.

Galdetegi hau, gehienbat, ikaskuntza zailtasunak dituzten umeen gurasoek, beraien seme-alabek jasotzen dituzten egokitzapenen eta irakasleen formakuntzaren inguruan duten pertzepzioaren inguruko informazioa biltzeko egin da. Hori lortu ostean, hurrengo ikerketa aurrera eramatea posible izan da.

Esan den moduan, galdera anitz eta ezberdinak dituen inkesta bat egin da. Eta galdera hauek mota askotakoak izan dira: zuzenak, itxiak, irekiak, erantzun motzekoak, erantzun luzekoak eta aukera anitzekoak. Galderaren arabera, mota bat edo beste bat egokiagoa dela erabaki da. Eta galdera hauek umeen, ikastetxeen, egokitzapen eta laguntzen eta irakasleen ingurukoak izan dira eta familiek hauen inguruan dituzten pertzepzioak adierazi dituzte.

4.1.3. PROZEDIMENDUA

Inkesta hau guraso askori iristeko asmoarekin, on-line egitea erabaki da, era honetan, pertsona bakoitzak inkesta betetzeko nahi duen eguna eta momentua erabakitzeko aukera eskaini zaio. Galdetegia bi talde ezberdinei betetzeko eskatu zaie. Lehenik, apirilaren 24ean Disnavarra Elkarteko bazkideei betetzeko eskatu zitzairen eta hasiera batean erantzun gutxi lortu ziren. Elkartean, bazkide gehiago sartu zirenean, galdetegia betetzeko eskatu zitzairen. Erantzun gutxi zeudela ikusita, maiatzaren 19an inkesta Espainiako FEDIS elkarteko

bazkideei bidali zitzaien. Beraz, galdetegiaren emaitzak apirilaren 24tik maiatzaren 23ra arte bildu dira.

Hau guztia jakinda, galdetegiaren bitartez lortutako informazioa aztertzea ezinbestekoa dela aipatu beharra dago.

4.2. EMAITZAK

Ikerketaren atal honetan, galdetegian bildutako informazioaren interpretazioa egingo da. Horretarako, galdera askoren erantzunak grafiko batean ikusteko aukera egongo da eta ondoren hauen azalpen txiki bat egongo da. Beste galdera batzuetan, aldiz, gurasoei idatzizko erantzuna eskatu zaie eta horregatik bakarrik idatzizko azalpena egongo da. Horrez gain, lehenengo galderak, probintzia, seme-alaben adina, maila eta generoa aurreko atalean azaldu dira. Beraz, jarraian, 5. galderatik aurrerako informazioa agertuko da.


1. grafikoa: 5. Zein ikaskuntza-zailtasun diagnostikatu zaio?



Lehenengo grafiko honetan, gurasoen seme-alabei zein ikaskuntza-zailtasun diagnostikatu dieten galdetu zaie. 58 parte-hartzailetatik 57k dislexia dutela, 11ek disortografia dutela, 10ek disgrafia dutela, beste 10ek arreta-defizitak eragindako arazoak hiperaktibitatearekin edo gabe dutela, 5ek diskalkulia dutela eta azkenik, 1ek lateralitate gurutzatua duela adierazi dute. Honek esan nahi du, ikasle berdinak dislexia izateaz gainera, beste nahaste bat izan dezakeela.

2. grafikoa: 6. Diagnostikoa non egin da?


6. Diagnostikoa non egin da?



3. grafikoa: 7. Noren susmoarekin egin da?

7. Noren susmoarekin egin da?

- Irakaslearen susmoarekin
- Familiako kide baten susmoarekin




Bigarren grafiko honetan, diagnostikoaren inguruan hitz egiten da eta hau non egin den galdetzen dela ikusi daiteke. Parte-hartzaileen %29,3ak eskola publikoan eta %53,4ak zentro psikologiko edo psikopedagogiko pribatuan egin duela adierazi du. Beste %5,2ak eskola pribatuan egin du eta, azkeneko %12,1ak, beste toki batean egin du. Hirugarren grafikoan, diagnostikoa noren susmoarekin egin den galdetu zaie eta bertan ikusi daitekeen moduan, %93,1en kasuetan, familiako kide baten susmorengatik egin da diagnostikoa, eta soilik, %6,9a irakaslearen susmoarekin egin da.

4. grafikoa: 8. Zure seme-alabak badaki diagnostikoa?

8. Zure seme-alabak badaki diagnostikoa?


- Bai



5. grafikoa: 9. Erantzuna baiezkoa bada, nola hartu du?

9. Erantzuna baiezkoa bada, nola hartu du?


- Pentsamendu edo iritzi positiboa du
- Pentsamendu edo iritzi negatiboa du
- Pentsamendu edo iritzi neutrala du



Gurasoei beraien seme-alabek diagnostikoa dakiten ala ez galdetzean, laugarren grafikoan ikusi daitekeen moduan, haur guztiak egoeraren gainean daude eta bosgarren grafikoan ikusi daitekeen bezala, umeen artean erreakzio ezberdinak egon dira. %39,7ak, beraien


egoera ondo hartu dute eta ikasteko zailtasunak dituztela jakitean, nolabaiteko lasaitasuna nabaritu dute. Izan ere, ikasketetan arazoak zituztenez gauza ezberdinak pentsatzen zituzten, horien artean, ergela zela eta nota txarrak ateratzea bere errua zela. Zer duen jakinik, orain beste pentsamendu bat garatu dute. %51,7ak, aldiz, ez dute bere zailtasuna onartu nahi eta lotsa eta haserrea sentitzen dute, eta zailtasun honekin jaiotzeagatik asko kexatzen dira. Eta azkenik, %8,6ak pentsamendu edo iritzi neutrala dutela ikusi daiteke, hau da, pixkanaka beraien iritzia aldatzen joaten dira eta egoeraren arabera, bat edo beste izaten dute.

6. grafikoa: 10. Ikastetxeak badaki zure seme-alabak ikaskuntza zailtasunak dituela?



Ikusi berri den grafikoan, ikastetxeak haurrek ikaskuntza zailtasunak dituztela dakiten ala ez galdetzen da eta %100-ak baiezkoa adierazi du.


7. grafikoa: 11. Zure seme-alabak ikasturteren bat errepikatu du? Ala bada, zenbatgarren maila?



Hurrengo grafikoan, haurrek ikasturte bat errepikatu duten ala ez galdetu da, eta hauetatik %19ak, maila bat errepikatu duela adierazi du eta %81ak, aldiz, ez. Beraz, 58 haurretatik, gutxienez 11ek maila bat errepikatu dute eta honako ikasturteak eta ume kopuruak izan dira: Lehen Hezkuntza 1 maila, 4 ume; Lehen Hezkuntza 2 maila, 3 haur; Lehen Hezkuntza 3.maila, 3 ume eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila, haur bat.

8. grafikoa: 12. Zure seme-alaben irakasleek egokitzapenak egiten dituzte etxerako lanetan, azterketan, ikasgela egunerokotasunean...?


12. Zure seme-alaben irakasleek egokitzapenak egiten dituzte etxerako lanetan, azterketan, ikasgela egunerokotasunean...?



Grafiko honetatik aurrera, galdetegia egokitzapen mota ezberdinen inguruko informazioa biltzera bideratu da. Grafiko honetan, modu orokor batean, ikasleek ikasgela barruan zein etxerako lanetan egokitzapenak jasotzen dituzten ala ez galdetu da. Argi ikusi daitekeen moduan, %27,6ak, baiezkoa erantzun du, %39,7ak, batzuetan jasotzen dituela esan du, %22,4ak, oso gutxitan izaten dituela aipatu du eta azkeneko %10,3ak, ezezkoa adierazi du. Datu hauekin batera, gurasoetako batek esandako esaldi bat ezartzea garrantzitsua da: *egokitzapenak egitea eskatzen den arren, ez dizkiote ematen; honen arrazoi nagusia, nota onak ateratzen dituela da.*

9. grafikoa: 13. Zure seme-alabak azterketetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?

13. Zure seme-alabak azterketetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?




Hurrengo galdera haurrek azterketetan jasotzen dituzten egokitzapenen ingurukoa da. Bertan, bi gurasoek beraien seme-alabek inoiz ez dituela egokitzapenik jasotzen adierazi dute, zehazki, %1,3ak. Horrez gain, %21,2ak biderkaketa taulak erabiltzen uzten dizkiotela, %18,6ri ez dizkiotela ortografiak akatsak kontuan hartzen eta %17,3ak azterketa egiteko denbora gehiago eskaintzen diotela adierazi dute. Gainera, %11,5en kasuetan, azterketako galderak irakurri egiten dizkiote eta %6,4ak, irakasleak haurrari azterketan eskatzen zaiona ulertzen duela ziurtatzen dela adierazi du. Bestalde, %9ri azterketa motzagoa jartzen diote eta beste %7,1ri letra formatua aldatu egiten diote. Ondoren, %2,6ri gauza garrantzitsuak azpimarratzen dizkiote edo azpimarratzen uzten dizkiote, %1,9ri ordenagailuan idazten uzten

diote eta beste %1,9ri irakurle digitalak erabiltzen uzten dizkiote edo erabiltzen dituzte. Azkenik, %0,6k beraien seme-alabei beste honako bi egokitzapen egiten dizkietela adierazi dute: umeak eskatzen duenean irakurri egiten diote baina ez dena eta ez du azterketarik egiten.

10. grafikoa: 14. Zure seme-alabak eguneroko saioetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?

14. Zure seme-alabak eguneroko saioetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?

- Ez ditu egokitzapenak jasotzen
- Denbora gehiago eskaintzen diote
- Letra formatua aldatzen diote
- Biderketa taulak uzten dizkiote
- Eskatzen zaiona ulertzen duela ziurtatzen
- Ez dizkiote ortografia akatsak kontuan
- Irakurle digitalak erabiltzen uzten diote /
- Ordenagailuan idazten uzten diote
- Galderak sakabantu egiten dizkiote
- Enuntziatuak ez ditu kopiatu behar




Azterketen egokitzapenak alde batera utziz, jarraian, saioetan zehar jasotzen dituzten egokitzapenen inguruan hitz egingo da. Aurreko grafikoan bezala, egokitzapen gehien duen ehunekoa biderkaketa taulak erabiltzen uztea da eta kasu honetan, %21,5ek jasotzen du. Eta azterketan ez bezala, saioetan zehar, haurren %20,4ak ez ditu inolako egokitzapenik izaten. Aitzitik, %15,1ri ez dizkiote ortografia akatsak kontuan hartzen eta beste %11,8ri, eskatzen zaiona ulertzen duela ziurtatzen dira. Bestalde, %7,5ri, letra formatua aldatu egiten diote eta %12,9ri, denbora gehiago eskaintzen diote. Horretaz aparte, %3,2k irakurle digitalak erabiltzen dituzte edo erabiltzen uzten diote eta %5,4ri, ordenagailuan idazten uzten diote. Azkenik, %1,1ri, galderak sakabanatu egiten dizkiote eta beste %1,1ri, enuntziatuak ez kopiatzeko aukera ematen dizkiote.

11. grafikoa: 15. Zure seme-alabak etxerako lanetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?

15. Zure seme-alabak etxerako lanetan nolako egokitzapenak jasotzen ditu?

- Ez ditu egokitzapenak jasotzen
- Denbora gehiago eskaintzen diote
- Letra formatua aldatzen diote
- Biderkaketa taulak uzten dizkiote
- Eskatzen zaiona ulertzen duela ziurtatzen dira
- Ez dituzte ortografia akatsak kontuan hartzen
- Irakurle digitalak erabiltzen uzten diote /
- Ordenagailuan idazten uzten diote
- Batzuetan kantitate guxiago jartzen diote
- Ez ditu etxerako lanik
- Koloreak erabiltzen uzten diote




Egokitzapenekin amaitzeko, hurrek etxerako lanetan jasotzen dutenaren inguruan hitz egingo da. Grafikoan argi ikusi daitekeen bezala, %41,6k ez dituzte inolako egokitzapenik

jasotzen eta, soilik, %1,1ek ez dituzte etxerako lanik izaten. Horrez gain, %13,5k biderkaketa taulak erabili ditzaketela eta %12,4ri ez dizkiotela ortografia akatsak kontuan hartzen adierazi da. Beste %7,9ri letra formatua aldatu egiten diotela ikusi daiteke. Gainera, %4,5k beraien seme-alabek honako hiru egokitzapen ezberdin jasotzen dituztela esan dute: denbora gehiago eskaintzen diote, eskatzen zaiena ulertzen duela ziurtatzen dira eta irakurle digitalak erabiltzen uzten diote edo erabiltzen dituzte. Bestalde, %5,6ri ordenagailuan idazten uzten diote eta %3,4ri batzuetan kantitate gutxiago jartzen diete. Amaitzeko, %1,1ri koloreak erabiltzen uzten diote.

12. grafikoa: 16. Zure seme-alabak dislexia duelako, ikastetxeak laguntzarik eskaintzen dizue?

16. Zure seme-alabak dislexia duelako, ikastetxeak laguntzarik eskaintzen dizue?

● Bai
● Ez
● Batzuetan




Ikastetxeak laguntzarik eskaintzen duen ala ez jakiteko, gurasoei honen inguruko galdera bat egin zaie. Grafikoan ikusi daitekeen moduan, %39,7ak ez du jasotzen, %15,5ak batzuetan jasotzen du eta, soilik, %44,8ak laguntza jasotzen du. Baiezkoa erantzun duten pertsoneri, laguntza hau nolakoa den galdetu zaie. Gehienek, PT-ak ikasleei laguntza ematen diela adierazi dute eta batzuk, egokitzapenak ere aipatu dituzte. Jasotzen dutenen artean, gehienek ikaslearentzako PT orduak onuragarriak direla aipatzen dute. Halaber, gurasoetako batek ikastetxeko zuzendaritzak, bere semea tratatzen duen zentro espezializatuaren laguntza onartzeari uko egin diola adierazi du, eta arrazoi horregatik, ikastetxeak ez diete laguntzarik eskaintzen. Amaitzeko, beste guraso batek, ikastetxeari dislexia zer den ulertzea kostatu egiten zaiola adierazi du.

13. grafikoa: 18. Ikastetxeak orientazio zerbitzurik eskaintzen dizue?

18. Ikastetxeak orientazio zerbitzurik eskaintzen dizue?


● Bai
● Ez
● Guk eskatuta
● Beraiek nahi duten moduan
● Gubitik



Ikastetxeak eskaintzen dituzten laguntzekin batera, eskaintzen dituen orientazio zerbitzuen inguruko galdera bat egin da. Gurasoen %49,1ek zerbitzua jasotzen dutela adierazi duten bitartean, %38,6ak ez du horrelakorik jaso. Horrez gain, %5,3ak gurasoek eskatzen denean jasotzen duela esan du, %3,5ak ikastetxeak orientazioa nahi duen momentuan ematen duela aipatu du eta beste %3,5ak gutxitan jasotzen duela adierazi du. Jasotzen dutenen artean, iritzi ezberdinak daude. Batzuk, oso ona jasotzen dutela eta astean behin edo gehiagotan bilerak izaten dituztela adierazten dute. Beste batzuk, aldiz, eskaintzen dituzten laguntzak txarrak direla esaten dute eta horietako batek honako hau aipatu du: *Negargarria! Ez dit ezertarako balio izan, orientatzaileak diagnostikoa bakarrik pribatua izateagatik zalantzan jarri zuen.*

14. grafikoa: 20. Dislexiaren inguruan zerbait ikasi duzula iruditzen zaizu?


20. Dislexiaren inguruan zerbait ikasi duzula iruditzen zaizu?



Hurrengo galderan, gurasoei dislexiaren inguruan ikasi duten ala ez galdetu zaie eta grafikoa ikusi daitekeen moduan, %100ak baiezkoa adierazi du. Ezagutza hauek nola eskuratu dituzten jakiteko, nola ikasi duten galdetu zaie, hau da, ikastetxearen aldetik, beraien kabuz edo beste nonbaitetik ikasi duten galdetu zaie. Horietatik, ia guztiek beraien kabuz ikasi dutela adierazi dute eta horietako batzuk dislexiaren inguruko elkarteren bat aipatu dute.

15. grafikoa: 22. Irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan ezagutza nahikoak dituztela uste duzu?

22. Irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan ezagutza nahikoak dituztela uste duzu?




Gurasoen iritzia oso garrantzitsua denez, irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan ezagutza nahikoak dituzten ala ez galdetu zaie eta %100ak, ezezkoa adierazi du.

16. **grafikoa:** 23. Irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan formakuntza nahikoa dutela uste duzu?

23. Irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan formakuntza nahikoa dutela uste duzu?

● Ez



Galdetegiarekin amaitzeko, gurasoei irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan formakuntza nahikoa duten ala ez uste duten galdetu zaie. Eta grafikoan ikusi daitekeen bezala, %100ak ezezkoa adierazi du.

4.3. ONDORIOAK

Galdetegian emaitzak interpretatu ostean, hauen inguruko ondorioak ateratzea oso garrantzitsua da. Beraz, emaitza guztiak kontuan izanik, ondorio ezberdinak aterako dira.

Lehenik eta behin, haurren diagnostikoaren inguruan hitz egitea garrantzitsua da. Emaitzetan ikusi daitekeen moduan, ehuneko gehienak zentro psikologiko edo psikopedagogiko pribatuan egin zaiela adierazi dute. Eskoletan egiten diren diagnostikoen ehunekoak, aldiz, baxuagoak dira. Baina galdera honetan deigarriena den emaitza, diagnostikoa egitearen arrazoi nagusia, familiaren kide baten edo gehiagoren susmoarengatik izan dela da. Hau nahiko deigarria dela esan daiteke, irakasle gehienek ez zirelako hortaz ohartu. Soilik, 58 kasuetatik 4etan, diagnostiko hau irakaslearen susmoarekin egin zen. Datu hauek ikusita, diagnostiko faltak ikasleak autoestimua eza izateak eta ondorio emozionalak jasan ditzakeela aipatu behar dira (Zuppardo, Serrano eta Pirrone, 2017).

Diagnostikoarekin jarraituz, haur guztiek zein ikaskuntza zailtasun dituzten dakitela ikusi da eta honen inguruko iritzi ezberdinak dituzte. Positiboak diren iritzi ezberdinak egon arren, negatiboak diren iritziak ere anitzak dira. Hau nahiko kezagarria dela esan daiteke, ikasleek beraiek dituzten zailtasunetaz lotsatu egiten direlako. Kasu hauetan, zailtasun hauek izan ditzaketan onurak aipatzea ezinbestekoa da. Izan ere, askotan zailtasunak aipatzerakoan, alderdi txarrak kontatzen dira, eta kasu oso gutxietan, alderdi onak aipatzen dira. Horregatik, kasu guztietan, eta bereziki, iritzi txarrak dituzten haurrei, zailtasun hauen inguruko onurak aipatu egin behar zaizkie. Masterson-ek (2023) dislexia duten pertsonen sormenean,

aurkikuntzan eta asmakuntzan “trebetasun” hobetuak dituztela adierazten du eta Rellok (2018) ere prozedura eta ekimena aipatzen ditu. Alderdi onez gain, dislexia duten ikasleek beraien ikaskideek bezain adimentsuak eta baliozkoak direla azaldu behar zaie eta emaitzak kontuan izan gabe, une oro beraien ahaleginak eta aurrerapausoak baloratu egin behar dira (Change Dyslexia, 2023c).

Bestalde, ikastetxeak kasu guztietan hurrek zein ikaskuntza zailtasun dituztela dakite. Hau oso garrantzitsua da, ikastetxeak hau jakitean, kasu bakoitzean zein egokitzapen egin behar dituzten ziurtatzen direlako. Egokitzapenak aipatu direnez, modu orokor batean ikusita, guraso gehienek ikasleek egokitzapenak oso gutxitan edo inoiz ez dituztela jasotzen adierazi dute. Datu hau nahiko kezagarria dela esan daiteke, ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasleek egokitzapen hauek jaso egin behar dituztelako. Hala ere, esan beharra dago, azterketetan egokitzapenak gehienek izaten dituztela eta hauek ikasleentzako lagungarriak izaten direla. Baina, etxerako lanetan eta saioetan zehar, egokitzapen hauen kopurua nabari jaisten da, bereziki, etxerako lanetan. LOMLOE legearen arabera, ikasle guztiek aukera-berdintasuna izan behar dute (Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación), eta horretarako, ikaskuntza zailtasunak dituzten ikasle guztiei beti egokitzapenak egitea ezinbestekoa da eta ez bakarrik suspenditu egiten dutenean. Gainera, gaur egun, ikasleen artean eskola uztearen eta porrotaren 6 kasuetatik, 4 kasuetan dislexia arrazoi nagusia izaten da (Federación Española de Dislexia, 2023). Horregatik, aditu ezberdinek diagnostiko goiztiar bat eta esku-hartze on bat egiteak, ikasleen eskola-aldian onurak ekarri ditzaketela adierazten dute (Ibidem).

Egokitzapenak alde batera utziz, maila bat errepikatu duten ikasleen inguruan hitz egitea oso garrantzitsua da. Lehen ikasturte bat errepikatzeko aukera asko zeuden, baina, gaur egun, kurtsoak ez errepikatzea gomendatzen da. Hau, ikaslearentzako maila bat errepikatzeak emozionalki desabantaila handia izateaz gainera, errendimendu txikiagoa, norbanakoaren autokontzeptu baxuagoa eta eskolaren aldeko jarreran ere eragina izan dezake (Federación Española de Dislexia, 2019, apud DISFAM, 2023a). Eta aipatutakoa kontuan izanik, ikasturtea ez errepikatzea gomendatzen da.

Horrez gain, ikastetxeak gurasoei eskaintzen dizkieten laguntzen eta orientazioen inguruan hitz egitea beharrezkoa da. Ikastetxeak seme-alaben %44,8ri, soilik, laguntzaren bat eskaintzen diete eta horien artean PT-a eta egokitzapenak daude. Oso datu kezagarria da, azkenean, familia erdiei baina gehiagori ez zaizkie inolako laguntzarik ematen edo bakarrik batzuetan ematen zaizkie. Honek, familiek laguntzak ikastetxetik kanpo bilatzea ekartzen du

eta beraien maila sozioekonomikoan eragina izaten du. Azkenean, dislexia ezgaitasun bat ez denez, Espainiako Gobernuak ez ditu bekak ematen. Honekin batera, ikastetxeak eskaintzen duen orientazioa dago eta, kasu honetan, %49,1ek orientazioa jasotzen dutela adierazi dute. Orientazioaren inguruan iritzi ezberdinak ikusi daitezke, horien artean, hau ona dela adierazten dutenak daude eta hau oso txarra dela adierazten dutenak daude. Ikastetxeak, berez, seme-alaba guztiei behar dituzten laguntzak eskaini behar dizkiete eta familiei orientazioa eman behar diote, egoera ulertzeko, ikaskuntza zailtasunen inguruko ezagutzak izateko eta bere semearen edo alabaren inguruko berriak jasotzeko. Zoritxarrez, hau oraindik ez da errealitate bat eta gurasoek galdetegian adierazi duten moduan, dislexiaren inguruko ezagutzak beraien kabuz edo elkarte ezberdinen bitartez lortu dituzte.

Esandako guztia kontuan izanik, gurasoek irakasleek ikaskuntza zailtasunen inguruan dituzten ezagutzen eta formakuntzen inguruan duten iritzia nahiko ulergarria dela esan daiteke. Azkenean, beraien ustez, irakasleek ez dituzte ez ezagutza nahikorik, ezta formakuntza nahikorik ere, eta horregatik, askotan ez dakite ikasleen beharrei erantzuten eta egokitzapen egokiak egiten eta diagnostikoa berandu etortzea dakar.

5. II KAPITULUA. IRAKASLEENTZAKO GIDA

Galdetegiaren emaitzak oinarritzat hartuz, irakasleentzako gida bat sortu da eta bertan, dislexiaren inguruko informazioa agertuko da.

5.1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Galdetegiaren bitartez lortu diren emaitzak ikusita, irakasleek dislexiaren inguruko ezagutza gutxi dituztela agertu da. Irakasleek ikasleen ezaugarriak hautemateko, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaskuntzaren nahaste espezifikokoaren esanahia jakiteko, nahaste honek ikasleengan izan ditzakeen ondorioak jakiteko, eta beste hainbeste arrazoiengatik, irakasleentzako gida bat sortu da. Modu honetan, irakasleek ikasgela barruan zein kanpoan, dislexiaren inguruko gida labur, erraz eta bisual bat izango dute. Gainera, horrelako gidak erabiliz, irakasleek ezagutza asko eskuratu ditzakete, eta gida honen kasuan, irakasleek honako informazioa barneratuko dute: dislexiaren esanahia, dislexiaren komorbididadeak, dislexiaren ezaugarriak eta onurak, dislexiaren ondorioak haurrengan, egokitzapenak eta laguntzak eta irakasleentzako formakuntza eta eskaintzak.

5.2. GIDA

Jarraian irakasleentzako sortu den gida agertuko da eta hobeto ikusteko joan 3.eranskinera.



AURKIBIDEA

1. Gidaren zergatia	2
2. Dislexiaren esanahia	3
3. Dislexiaren komorbilidadeak	4
4. Dislexiaren ezaugarriak eta onurak	7
5. Dislexiaren ondorioak hurrengan	11
6. Egokitzapenak eta laguntzak	12
7. Irakasleentzako formakuntza eta eskaintzak	14
8. Bibliografia	15
	1

1. Gidaren zergatia

Gaur egun, dislexia duten ikasleei egokitzapenak egitea ezinbestekoa da eta horregatik, irakasle batek zein egokitzapen egin behar zaizkien jakin behar du. Azkenean, hauen bitartez, ikasleen ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzen da.



Hau jakinda, irakasleak dislexiaren inguruko gutxieneko ezagutzak izatea ezinbestekoa dela esan beharra dago. Horrez gain, irakasleak gai honi buruzko informazioa eskura izatea ere garrantzitsua da.



Arrazoi hauengatik, gida honetan dislexiari buruzko informazioa jarriko da. Modu honetan, irakasleak era erraz, labur eta bisual batean dislexiaren inguruko informazio anitz eskura izango du.



Beraz, gida hau, gehienbat, irakasleei bideratuta dago.

2

2. Dislexiaren esanahia

Dislexia ikaskuntza espezifikoko nahaste bat da eta American Psychological Association-ek (2013) idatzirik DSM V-aren arabera, dislexia nahastea diagnostikatzeko 4 irizpide ezartzen dira:

- Lehenengo irizpidea, pertsonak ikasteko eta gaitasun akademikoak erabiltzeko zailtasunak erakustea da. Hala ere, jarraian azalduko diren sintoma gutxiatik gutxienez sintoma bat 6 hilabetez edo gehiagoz iraun behar du (zailtasun horri bideratutako esku-hartzeak egin arren).
 - Zailtasun ortografikoak.
 - Irakurtzen duenaren esanahia ulertzeko zailtasuna.
 - Adierazpenarekin idazteko zailtasunak.
 - Hitzen irakurketa zehaztugabea edo motela eta ahalegindua.
- Bigarren irizpidea, pertsonaren gaitasun akademikoak funtsean eta maila kuantifikagarrian bere adin kronologikorako espero denaren azpitik egotea da, eta hauek errendimendu akademikoan, lan-errendimenduan, edo eguneroko bizitzako jardueretan eragin nabarmena izaten dute. Aipatu berri diren jarduera horiek, banaka hartutako neurri (proba) estandarizatuen eta ebaluazio kliniko integralaren bitartez egiaztatzen dira. Gainera, 17 urteko edo gehiagoko pertsonetan, ikaskuntzaren zailtasunen historia dokumentatua ebaluazio estandarizatuarekin ordezkatu daiteke.
- Hirugarren irizpidea, ikasteko zailtasunak eskola-adinean hasten direla da, baina gerta daiteke kaltetutako gaitasun akademikoaren eskaerak gizabanakoaren gaitasun mugatuak gainditu arte hau guztiz ez gertatzea.
- Azken irizpidea, ikasteko zailtasunak adimeneko ezgaitasunengatik, zuzendu gabeko ikusmen- edo entzumen-arazoengatik, bestelako arazo mental edo neurologikoengatik, ikasketa lengoaiaren ez jakiteagatik edo hezkuntza-jarraibide desegokiagatik, ezbehar psikosozialagatik ez direla hobeto azaltzen da.

DSM V-ak 2013an, **ikaskuntzaren nahaste espezifikoa** kontzeptua erabiltzen hasten da eta hau diagnostikatu ostean, nahastea zein zailtasunekin duen zerikusia zehaztu behar dela adierazten du.¹

1. Irakurketan zailtasunak izatea (dislexia)
2. Idatziko adierazpenean zailtasunak izatea (disgrafia eta disortografia).
3. Zailtasun matematikoak izatea (diskalkulia).


1. American Psychological Association (2013) apud Rello (2018).

3

3. Dislexiaren komorbidadeak

Atal honetan, dislexiaren komorbidade batzuk azalduko dira: disgrafia, disortografia, arreta-defizitak eragindako arazoak hiperaktibitatearekin edo gabekoa, diskalkulia eta dispraxia.

Disgrafia 1: nahaste funtzional bat da eta honek idazketaren kalitatean eragina du. Nahaste honek eragina izan dezake idazketaren trazaduran edo grafian, abiaduran eta presioan; hitzen eta letren arteko tartea handiegia edo txikiegia izan daiteke; letra handiegia edo txikiegia izan daiteke eta, batzuetan, hitzen arteko lotura okerrak hautematen dira.² Gainera, ezagutza eta ideiak sortzeko eta antolatzeko eta testuaren egitura sintaktikorako, gramatika-koordinaziorako eta ideien arteko lotura egiteko zailtasunak dituzte.³



Disgrafia 2: formak gaizki hautematearekin eta batzuetan, espazio- eta denbora-desorientazioa eta erritmo-nahastearekin definitzen da. Disgrafia hau duten haurren idazketa-arazoak jatorriak, zurruntasun edo oldarkotasun handiegia, trebetasun ezak, moteltasunak edo guztizko zorrotasunak izan daitezke.⁴

2. Garbaldi (2015), apud Chicaiza eta Redrobin (2017).
3. Silva (2022a).
4. Equipo de Expertos en Educación (2023).

4

3. Dislexiaren komorbidadeak

Disortografia: hitzei eragiten dien idazketako akatsen multzoa da. Beraz, idazteko unean ematen den nahaste bat da. Haur batek arazo hau duenean, batez ere, idazketan akats ortografikoak egiten ditu, baina irakurtzeko momentuan ez du zailtasunik izaten.⁵



